



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2025FPRO0002

DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

2025eko apirilaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Lehiaketa berezi bidez Udal Aparejadorea/Zerbitzu eta mantenu saileko burua lanpostua betetzeko oinarriak argitaratu ziren. Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkariaren ere iragarkia atera zen, eskaerak egiteko epea zabalduz. Akats zuzenketa ere argitaratu zen. Ondoren, BOE-n ere iragarkia argitaratu eta eskaerak egiteko epea ireki zen. 2025eko irailaren 30ean 2025/1253 dekretuan behin behineko zerrendak onartu eta prozesurako balorazio batzordea izendatu ziren.

Hau guztia kontutan harturik, zera

ERABAKI DUT

LEHENENGO: Onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda onartzea, ebazpen honekin I.go eranskin gisa doana.

BIGARREN: Iragarki hau Usurbilgo Udaleko iragarki taulan argitaratzea.

Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsoa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.
- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztaillaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: **2025FPRO0002**

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena alkateak. Usurbilen, dekretuaren datan.

ALKATEA
Agurtzane Solaberrieta Mesa

IDAZKARIA
Leire Ucin Soraluze



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2025FPRO0002

BEHIN BETIKO ONARTUAK

	IZENA	NAN
1.-	ETXEBERRIA GALARZA IMANOL	***6909**
2.-	ETXEBERRIA GURRUTXAGA LUR	***6578**
3.-	LANDA OÑATE RICARDO	***9335**
4.-	MANUEL BENGOA ASIER	***8136**
	SALSAMENDI RODRIGUEZ MAIALEN	***0408**

BAZTERTUAK

zenb	IZENA	NAN
1.-	PIÑEIRO MONTOYA MAITANE (1)	***6982**
2.-	UNAMUNO AZCARATE MAIDER (1)	***9582**

(1) Lehiaketaldian parte hartzeko baldintza: Edozein Admnistrazio Publikotako karrerako funtzionarioa izatearen agiria aurkeztea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025FPRO0002-Dekretua_orokorra/Dekretua_orokorra (USURBILGO UDALA)